



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@jalgi.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Gaztelekuaren alde

Urteetan zehar argi geratu da Urnietar gazteok nork bere txokoan bere txokokideekin gauzatu behar izan dugula aisialdia.

Gazteon ahotsa zentsuratua dago Urnietan, ez dugu baliabiderik. Dena dela, udaletxea ez da lotsatzen Berrittu aldizkarian gazteria pasiboa dela esatean. Ez eta «gaztelekua» zabaldu dutela diotenean ere; 12 urtetatik 17 urtetako gazteentzat proiektaturiko gaztelekua.

Pasa diren *Gazteriaren jaietan* ere argi geratu da gazte hitzaren kontzeptua ez dutela oso ondo ulertzen.

Hala ere, gazteria oztopo guztien gainetik, baliabideak eratu eta 90 gazte bildu dituen ekimena antolatzeke gai izan da besteak beste. Denda eta taberna ezberdinen laguntza ere jaso dugu, nahiz eta Batzokian oso argi utzi ziguten udaletxeak jadanik antolatuak zituela jaiak. Eta noski, udaletxeak xentimorik ez! Gazteok benetako gaztelekua behar dugu. **Amaia Esnal** • *Gazte Aktiboak-en izenean* • URNIE-TA (GIPUZKOA)

Hezkuntza Sailari: Gure eskola bizirik, nola?

Apirilaren 29an jaso genuen datoren ikasturterako gure ikastetxeari zegokion LPZa (Lanbide postuen zerrenda); hemen agertzen da 1999-2000 ikasturtean gure eskolari egoituko zaion irakasle kopurua. Honetarako hezkuntza arduradunek haur kopurua eta ratioak erabili dituzte irizpide bakartzat, eskola txikitako egoera kontuan hartu gabe.

Eskolako Organo Gorenak LPZ hori aztertu ondoren, eskolaren

etorkizuna kolokan jarriko litzatekeenez, onartezina dela adierazi zuen. Hori dela eta, Plangintza buru Juan Gallastegirekin bilera eskatu eta maiatzaren 5ean Eskolako Organo Gorena osoa bildu zen ez onarpenaren arrazoiak azaltzeko eta erabakia aldatu zezaten eskatzeko.

Plangintza buruak erantzuna asetebete barru emango zigula agindu zigun, baina erantzunik gabe jarraitzen dugu. Udal, guraso eta eskolako zuzendaritzaren gestioek ez dute ezertarako balio izan. Kurtsoa amaitzeaz dago eta erantzunik ez jasotzeak asko kezkatzen gaitu.

Hezkuntzako arduradunek jakatu duten moduarekiko eta erabakia atzeratze hori gure indarrak ahultzeko estrategia bat besterik ez ote den susmoa daukagu. Non gelditzen da haurrek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea?

Aurten dugun irakasle kopuru bera ziurtatzea nahi dugu datorren ikasturterako. Era horretan baka-
rrik posible izango du gure eskolak kalitatezko hezkuntza eskaintzea. **Tere Etxeberría eta beste 25 sinadura** (Itsasondoko Herri Eskola) • ITSASONDO (GIPUZKOA)

Fermin Muguruzari gutun irekia

Azken bolada honetan, identitate ideologikoaren ezaugarriaren modura feminismoa hartu duzu. Egia ote? NWA, Rap amerikar taldea eta Ice-Cube, bere liderra, *Gure Jarrera* zuen diskoan eskertuz errebindikatuak dira, eta *Salam, Agur*-ean egi-
ten dituzuen bertsioen artean, horietako bat merezi dute. Ia begiratu gabe, haien kanta bat har dezagun: *Urdanga bat gutxiago* («ergel batek emakume guztiak damak direla us-

te du, beltz batek dama guztiak urdangak direla uste du ordea, eta niretzat urdanga guztiak berdinak dira: diru gose zuloak, diru gabe gertzen den arte, beltz baten zakila zamalkatzen dutenak»).

Jarraik antolatutako Zaldibia Topagunean 96ko apirilean, Ice-T amerikar raperoarekin jo zenuen, bere kanten hitz matxistetaz ezaguna: *KKK-urdanga* («beltza, orientala izatea guri bost axola...txortan aritzeko alua baldin baduzu») edo *Strippers* («urdanga baino okerragoa zara, nire buztana zurgatzea nahi dut, zu bortxatza ez ni behartu»). Mementu hartan zure konpromezu feminista desagertu zen... bi hilabete geroago berragertzeko Irungo Alardearen «matxismoa» salatzen, antzespren honetan emakume-eskopetadun pertsonaia ez sartzeagatik.

Amaitzeko: Zure jarrera eta ustea erdi ustelak iruditzen zaizkit, eta zure Alarde tradizionalaren aurkako erasoan atzetik beste motibazioak daudela uste dut, ezker abertzaleen sektore batzuetan dauden berberak. Beste motibazioen artean, «espainolistagatik»? ez da inoiz ondo ikusia izan. Lehen erasoak «militaristagatik», herriaren kontra Alardearen eredu bat inposatzen, gatazka sortzeko formula aurkitu arte. EHren bozemaile feministek, zu barruan zauden zerrenda bat bozkatzear zer egiten ari diren jakin behar dute... hala ere Zaldibia ondoren, Ice-T kontzertu buru bezala kontratatzen duen feminismo mota arraroa da, benetan.

Konpromezu bitxia zuena, benetako alarde matxistekin elkar ados jartzten dena. Egia iraultzailea da, gogoratzen al duzu? Engainu eta liluraren kontra. **Iñaki Oyarzabal** • IRUN (GIPUZKOA)

galdeiozu...



Tomas Karrera

SENIDEAK TALDEKO BOZERAMAILEA

Hainbat manifestaldi eta protestaldik (gose grebak, itxialdiak...) jendea kontzientziatzeko balio izan du, baina presoak Euskal Herriratzeko ez du balio izan. Zer borroka mota berri asmatu behar da Gobernuaren jarrera aldatzeko?

Andoni Oiarbide [Legorreta]

■ **EUSKAL GIZARTEAK** aurrrera eraman du borroka hau orain arte. Bataila politikoa izanik, alderdi politikoak ez daude arazoak eskatzen duen neurrian. Hala ere, gizarteak era asko ditu borroka hau aurrrera eramateko: elkarte profesionalek, mediku eta abokatuak elkarrekin... inplikazio zuzena izan behar dute, eta gizarte osoak beste protesta mota bat bailiran landu eta garatu behar ditu. Hau guztia herri eta nazio mailan aldi berean gauzatu behar da.

Ekainaren 15etik aurrera

Pepe Rei • KAZETARIA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

